



Elixabete Echanove Landajuela
Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako
zuzendaria
Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza
Herri Administrazio eta Justizia Saila

Andre hori,

Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan uztailaren 1ean, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du toki-araubidean eta autonomia erkidegoko zein toki-administrazioetako funtzionarioen estatutuari dagokionez, betiere Konstituzioan finkatutakoari kalterik egin gabe (10.4 artikulua).

Eskumen horren babesean, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Legearen Aurreproiektua izapidetzen ari da.

Aurreproiektuaren I. Tituluan legearen xedea eta printzipioak jasotzen dira (1-7 artikulua), II. Tituluan udalerria eta gainerako euskal toki-erakundeak arautzen dira (8-13 artikulua), III. Tituluan udal-eskumenak (14-24 artikulua), IV. Tituluan udalerraren antolaketa eta funtzionamendua, udal-ordezkarien estatutua eta zuzendaritza-kide publiko profesionalak (25-40 artikulua), V. Tituluan auzotarren betebeharrak eta eskubideak, eta zerbitzu karta (41-44 artikulua), VI. Tituluan gobernu irekia, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea (45-74 artikulua), VII. Tituluan Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua (75-83 artikulua), VIII. Tituluan tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa (84-97 artikulua), eta IX. Tituluan udal-finantzaketa (98-110 artikulua). Azkenik sei xedapen gehigarri, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea (indarrik gabe utziz uztailaren 28ko 326/1994 Dekretua, Euskadiko Udal Kontseilua sortzekoa; abenduaren 1eko 364/1987 Dekretua, toki-erakundeek ikur bereizgarriak hartzeko edo aldatzeko prozedura onartzekoa; eta abenduaren 12ko 271/1983 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenak aldatzeko prozedura finkatzekoa), eta bost azken xedapen (besteak beste Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako lurralde historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, eta zergapideen elkar-egokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko maiatzaren 30eko 3/1989 Legea aldatuz).

Bestalde, aztergai dugun Lege Aurreproiektuaren testuan badaude hizkuntza aipamen batzuk:

-1. Zioen azalpeneko IV. atalaren hirugarren paragrafoan adierazten denez, udalek eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatu behar diete herritarrei, horien artean hizkuntza-eskubideak, eta hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura- eta hizkuntza-eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraupen, finkapen eta garapenaren alde.

-2. Zioen azalpeneko VI. atalaren bigarren paragrafoan iragartzen denez, legearen lehenengo tituluan xedapen orokorrak daude, eta besteak beste Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen hizkuntza aztertzen dute. Atalaren bosgarren paragrafoaren arabera, lehenengo tituluan jasotzen da euskararen erabilera Autonomia Erkidegoaren tokiko administrazioaren esparruan, Euskal Herriaren berezko hizkuntza den aldetik.

Atalaren seigarren paragrafoari jarraiki, euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta, beraz, baita bertako toki erakundeetan ere. Alde horretatik, jardueretan zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da toki-erakunde horietan, betiere herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuta, eta erabilera normala eta orokorra izango du bertan. Berariaz adierazten da gainera, euskaraz egin daitekeela egintza eta izapide oro.

Zioen azalpeneko VI. atalaren zazpigarren paragrafoaren arabera, euskararen erabilera sustatzeko, planifikatzeko eta dinamizatzeko eskumenak aitortzen zaizkie udalei, bai udal-zerbitzuen alorrean, bai familia inguruko eremu askotarikoetan ere. Bide horretan, aukera ematen zaie udalei bitartekoak jartzeko, baita bitarteko arauemaile eta ekonomia-finantzen alorrekoak ere, eta euskararen eremuan beste erakunde batzuekin lankidetzan edonolako formulak bilatzeko.

-3. Aurreproiektuaren 6. artikulua “EAEko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala” du izenburu. Lehenengo paragrafoan jasotzen denez, euskara, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala da, eta alde horretatik, beren jardueretan zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango da, erabilera normala eta orokorra izango duena, baina edonola ere, herritarrek eskubide osoa izango dute tokiko erakundeekiko harremanak zer hizkuntzatan izan nahi duten, eta hortaz, tokiko erakundeek hizkuntza horretan eskaini beharko diete arreta eta horretarako behar diren neurriak hartu beharko dituzte.

Nabarmendu behar dugu “herritarrek eskubide osoa izango dute tokiko erakundeekiko harremanak zer hizkuntzatan izan nahi duten” testua zuzendu eta osatu beharko dela, “herritarrek eskubide osoa izango dute tokiko erakundeekiko harremanak zer hizkuntzatan izan nahi dituzten erabakitzeko” bihurtuz, gaztelaniazko testuarekin bat etor dadin (“derecho de los ciudadanos y ciudadanas a escoger la lengua oficial en la que se relacionan con los entes locales”).

Bigarren paragrafoaren arabera, posible izango da toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, akordio-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, akordioak eta aktak euskaraz idaztea, baldin eta hala arautzen bada, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein interesdunen eskubideak urratu gabe, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe.

Izendatzean, arauaren izen osoa jarri beharko litzateke, “Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24 10/1982 Oinarrizko Legea”, adibidez Aurreproiektuaren 7.3 artikuluan egiten den bezala.

-4. Aurreproiektuaren 7. artikulua “Euskararen erabilerarekiko udal-eskumenak” du izenburu. Lehenengo paragrafoan jasotzen denez, udalerriek euskararen erabilera sustatzeko eta beren eskumeneko zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza egiteko eskumena dute, eta ondorio horietarako, udalerrri bakoitzak behar diren neurriak hartuko ditu, eta euskararen erabilera normalizatzeko planak onartu eta garatuko ditu, kontuan izanik erakunde komunek eta indarrean dagoen legeriak ezarritako plangintza-irizpideak eta euskararen erabilerarako onartutako araudia.

Bigarren paragrafoaren arabera, udalerrriek eskumena dute euskara beren lurralde-eremuan sustatu eta dinamizatzeko, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz nahiz beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz. Hirugarren paragrafoari jarraiki, udalerriei dagokie beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen gaineko prozedura arautu eta haiek onartzea, horrek ezertan galarazi gabe Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan, aplikatu beharrekoa den gainerako legerian eta kasuan kasuko foru-araudian ezarritakoa.

Laugarren paragrafoan ageri denez, toki-erakundeek elebitasuna bermatuko dute hizkuntza-paisaian, seinale publikoetan eta beren lurralde- eta eskumen-esparruan zabaltzen eta beren esparrura ekartzen diren ohiko naiz noizbehinkako iragarkietan. Bosgarren paragrafoaren arabera, udalerrriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz baliatu ahal izango dituzte. Seigarren paragrafoari jarraiki, euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, toki-erakundeek hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte,

mankomunitate, partzuergo, elkarte edo udalez gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu, edo elkarrekin aritzeko beste bide batzuk urratu.

-5. Aurreproiektuaren 17.1.11) artikulua arabera, udalerrii eskumen propioak erabiltzeko aukera emango dieten esparru materialen artean dago “erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea”.

-6. Aurreproiektuaren 17.1.26) artikulua arabera, udalerrii eskumen propioak erabiltzeko aukera emango dieten esparru materialen artean dago “euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 5. artikuluan xedatutakoa gorabehera”.

-7. Aurreproiektuaren 42.1.h) artikulua arabera, auzotarrek hizkuntza ofizial bietatik edozein erabiltzeko eta aukeratutakoan artatuak izateko eskubidea daukate toki-administrazioarekiko harremanetan, herritarren hizkuntza-eskubideak arautzen dituen autonomia-erkidegoko legeriaren arabera.

-8. Aurreproiektuaren 47.4 artikulua arabera, irabazi asmorik gabeko erakundeek, gizarte, kultura, hizkuntza edo ingurumen intereseko helburuak baino ez dituztenean, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua dutenean, legeak ezarritako betebeharrak betetzeko, laguntzak edota ekarpenak nagusiki jasotzen dituzten toki-erakundeetako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte.

-9. Aurreproiektuaren bosgarren xedapen gehigarriaren 3.g) atalean jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenen artean dago, estaturako gaikuntza duten funtzionarioei dagokienez, lanpostuak betetzeko lehiaketetan, eskubide historikoetatik eta bereziki Kontzertu Ekonomikotik darizkien berezitasun juridikoen eta ekonomiko-administratiboen ezagutzari eta euskararen ezagutzari dagozkien merezimenduak finkatzea.

-10. Aurreproiektuaren bosgarren xedapen iragankorrari jarraiki, legea indarrean sartzean dauden tokiko musika eskolak eta udal euskaltegiak finantzatzeko diren Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunen laguntza publikoak, toki-erakunde bakoitzarekin sinatutako urte anitzeko lankidetzak-hitzarmenen bidez bideratuko dira, Udal Ogasun osoaren finantza-iraunkortasuna arriskuan jarriko ez duen eta zerbitzuaren jarraipena babestuko duen finantza-nahikotasuneko esparru egonkorra bermatzeko.

Beraz, aipatutako Lege Aurreproiektua aztertuta, euskararen erabileraren normalizazioari begira positibotzat jotzen dut. Halere, arauak eragin hobea izan dezan, ondokoak proposatzen ditut:

b.1- Lege Aurreproiektuaren 6. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala arautzen da, eta 7. artikuluan euskararen erabilerarekiko udal-eskumenak.

Uste dugu egokia izango litzatekeela bi artikuluko horiek kapitulu batean bateratzea, hizkuntza gaiaren berezitasuna kontuan hartuta, adibidez “Euskararen erabileraren normalizazioa” (“De la normalización del uso del euskera”) izenburupean.

b.2- Lege Aurreproiektuaren 6. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen hizkuntza ofiziala arautzen da. Bigarren paragrafoaren arabera, posible izango da toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, akordio-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, akordioak eta aktak euskaraz idaztea, baldin eta hala arautzen bada, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein interesdunen eskubideak urratu gabe, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe.

Gaur egun maiz gertatzen da udalen barne jardun hori euskaraz gauzatzen dela, baina arazoak sortzen dira Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legea onartu zuen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 56.1 artikuluan eta toki-erakundearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 196.3 artikuluan agindutakoa betetzeko xedez udalek hartutako ebazpen eta akordioaren kopia edo laburpena estatuko administrazioa bidaltzen dutenean, azken honetatik informazio guztia gaztelaniara itzulita igortzeko eskatzen ari baitaie.

Arazo horiek gainditzeko, eta Lege Aurreproiektuaren 6.2 artikuluan jasotakoak eraginkortasun handiagoa izan dezan, xedapen hau osatzeko proposatzen dugu, honela lagaz:

6.2- Posible izango da toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, akordio-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, akordioak eta aktak euskaraz idaztea. Aukera hau baliatu ahal izango da, atal honetan aipatutako kasuetan, betiere euskararik ez jakitea balioz alega dezakeen toki-erakundeko kidearen eskubideak urratzen ez badira, euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean xedatutakoa kaltetu gabe. Ebazpenak, aktak eta akordioak euskaraz idazten direnean, hizkuntza honetan bidaliko dira kopiak edo laburpenak autonomia erkidegoko administrazioa eta estatuko administrazioa, toki-erakundeei buruzko estatuko araudian xedatutakoa betez.

6.2- Las convocatorias, órdenes del día, mociones, votos particulares, propuestas de acuerdo, dictámenes de las comisiones informativas, acuerdos y actas de los órganos de las entidades locales podrán ser redactados en euskera. Esta facultad podrá ejercerse, en los supuestos enumerados en el presente apartado, siempre que no se lesionen los derechos de ningún miembro de la entidad local que pueda alegar válidamente el desconocimiento del euskera, sin perjuicio de lo previsto en la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera. Cuando las resoluciones, actas y acuerdos se redacten en euskera, en esta lengua se remitirán las copias o extractos a la administración autonómica y a la administración estatal, en cumplimiento de lo dispuesto en la normativa estatal sobre régimen local.

b.3- Lege Aurreproiektuaren 7. artikuluan euskararen erabilerarekiko udal-eskumenak arautzen dira.

Uste dugu artikulua bigarren paragrafoan euskararen ezagutzari egin behar zaiola erreferentzia, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera estuki lotuta daudelako alde batetik, eta toki erakundeek euskararen ezagutza helburu duten ekintzak burutzen dituztelako bestetik, hala nola euskaltegiak ikasleei diru-laguntzak eman, guraso, merkatari edo ostalaritzako langileei zuzendutako euskara ikastaroak antolatu eta finantzatzea, etorkinentzako ikastaro bereziak antolatu eta finantzatzea, euskaltegi pribatuentzako laguntza zuzenak, aisialdiko monitoreentzako ikastaroak, eta abar.

Horregatik, Lege Aurreproiektuaren 7.2 artikuluan jasotakoa osatzeko proposatzen dugu, honela lagaz:

7.2- Era berean, udalerriek eskumena dute euskararen ezagutza eta erabilera beren lurralde-eremuan sustatu eta dinamizatzeko, zuzenean horretarako zerbitzuak eta jarduerak antolatuz nahiz beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

7.2- Asimismo, los municipios tienen competencia para fomentar y dinamizar el conocimiento y el uso del euskera en su ámbito territorial, ya sea mediante la prestación de actividades y servicios a estos fines o mediante la colaboración en la financiación de actividades de fomento y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades.

b.4- Txosten honen b.2 atalean proposatutakoaren ildotik, uste dugu Lege Aurreproiektuaren 7. artikuluan beren beregi jaso behar dela toki erakundeek euren artean eta beste herri administrazioekin dituzten harremanetan hizkuntza ofizialetako bat, euskara bada hobe, erabiltzeko aukera, dena euskaraz eta gaztelaniaz bidali beharrik gabe eta alferreko itzulpenak ekidinez.

Izan ere, euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izanik Euskal Autonomia Erkidegoan, balio juridiko osoa izan behar du batean nahiz bestean egindakoak, eta euskararen erabileraren aurrean erakunde jasotzaileak hartu beharko luke bere gain balizko itzulpenen beharra, erakunde bidaltzaileari gaztelaniaren erabilpena inposatu gabe, Autonomia Estatutua onartu zenetik igarotako urte kopurua kontuan hartuta baliabideak izan behar baitituzte herri administrazioek ofiziala den hizkuntza batean aritzeko.

Horregatik, Lege Aurreproiektuaren 7. artikuluan bosgarren paragrafo berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

7.5- Toki erakundeek euskararen erabilera handiagoa sustatuko dute euren arteko harremanetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri administrazioekin dituzten harremanetan, adostasuna bilatuz, eta edozein kasutan, bi hizkuntza ofizialetako bata nahiz bestea erabili ahal izango dute, beste hizkuntza ofizialera itzuli beharrik gabe.

7.5- Las entidades locales promoverán el uso progresivamente mayor del euskera en las relaciones entre ellas y con el resto de las administraciones públicas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y procurarán para ello la vía del acuerdo, pudiendo, en todo caso, usar indistintamente cualquiera de las dos lenguas oficiales sin la obligación de aportar la traducción a la otra lengua oficial.

Bestalde, Lege Aurreproiektuaren 7. artikuluko egungo bosgarren eta seigarren paragrafoak seigarren eta zazpigarren bihurtuko lirateke, hurrenez hurren.

b.5- Bestalde, Lege Aurreproiektuaren 76. artikuluko Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta 79. artikuluko Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeari dagokienez, haien osaera anizkoitza ikusita, legearen erregelamenduzko garapena egiterakoan partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatu beharko litzateke, kideek batzarretan euskara eta gaztelania erabili ahal izango dutela jasoz, eta biak erabiliko direla deialdietan, gai-zerrendetan, aktetan eta beste idazkietan.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko abuztuaren 1ean

Jokin Azkue Arrastoa
Euskara Sustatzeko zuzendaria¹

¹ Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria ez egoteagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera